

## AISIALDI LOKALEN UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA

### I. KAPITULUA. APLIKAZIO EREMUA.

#### 1. artikulua. Misioa eta helburuak.

Ordenantza honen misioa da nagusiki erabiltzen diren aisialdi alternatiboko guneek beharrezko gutxieneko segurtasun eta higiene baldintzak betetzen dituztela bermatzea, erabiltzaileei zein auzotarrei eragozpen eta arrisku mota oro ekidinda.

Ordenantza honen helburua da udalerriko aisialdi lokalen erabilera arautzea.

#### Helburuak:

- a) Aisialdi lokalek gutxieneko baldintzak betetzen dituztela ziurtatzea, bizigarritasunari, higieneari eta erosotasunari zein segurtasun neurriei eta auzoari begirako gainerako eragozpenei dagokienez.
- b) Aisialdi lokalen erabilera eta auzotarrek eragotziak ez izateko duten eskubidea bateragarri egitea. Finean, lokalen erabilera eta auzotarren eskubideak bateratzea, dagozkion neurri zuzentzaileak hartuta.
- c) Aisialdi lokalek eragiten dituzten arazoek kopurua murriztea eta bizikidetzaren sustatzea.

#### 2. artikulua. Definizioa.

Asialdirako lokaltzat joko dira sarbide mugatukoak direnak, bizitegiko Hiri-zoruko etxabeetan daudenak, erabiltzaileek euren aisialdian topagune eta besteekin harremanak izateko gune gisa erabiltzen dituztenak.

## ORDENANTZA MUNICIPAL REGULADORA DE LOCALES DE OCIO

### CAPÍTULO I. ÁMBITO DE APLICACIÓN.

#### Artículo 1. Misión y objetivos.

La presente ordenanza tiene como misión garantizar que los espacios de ocio alternativo utilizados principalmente por los/as jóvenes reúnan las condiciones mínimas necesarias de seguridad e higiene, evitando todo tipo de molestias y riesgos para las personas usuarias como para el vecindario.

El objetivo de esta Ordenanza es regular el uso de los locales de ocio del municipio.

#### Objetivos:

- a) Asegurar que los locales de ocio cumplan unas condiciones mínimas, tanto en lo que se refiere a la habitabilidad, higiene y comodidad como a las medidas de seguridad y demás molestias al vecindario.
- b) Hacer compatible el uso de los locales de ocio con los derechos de los vecinos y las vecinas a no ser molestados/as. En definitiva, conciliar el uso de los locales con los derechos del vecindario mediante la adopción de las correspondientes medidas correctoras.
- c) Reducir el número de problemas que originan los locales de ocio e impulsar la convivencia.

#### Artículo 2. Definición.

Tendrán la consideración de locales de ocio aquellos locales de acceso limitado, existentes en plantas bajas de Suelo Urbano residencial, que los usuarios utilizan en su tiempo libre como espacios de encuentro y socialización.

### **3. artikulua. Ordenantza honen aplikazio eremua.**

Ordenantza hauen mende aurreko artikuluan jasotako lokal eta instalazio guztiak daude, euren funtzionamendua Berrizko udal barrutian garatzen dutenak, euren titularrak edo antolatzaileak pertsona fisiko edo juridikoak, irabazi asmorik gabeak, izan ala ez, eta alde batera utzita ohikotasunez edo tarteka erabiltzen diren.

Ordenantza honen mende egun dauden lokalak nahiz etorkizunean irekitzen direnak daude, beraz, kontuan hartuko da aisialditzako lokal berriak irekitzerakoan zein jada daudenak egokitzeko orduan.

### **4. artikulua. Erabilera.**

- a) Lokal hauek Ingurumenaren Babesari buruzko 3/1998 Legearen 55 eta 46-bis artikuluetan jasotako jarduera sailkatuaren aurretiko jakinarazpenaren mende daude. Ez dira onartuko aisialdiarekin zuzenean lotuta ez dauden jarduerak, ezta gogaikarriak edo debekatuta daudenak ere. Era berean, debekatuta dago edozein produkturen salerosketa.
- b) Ordenantza honetatik kanpo espresuki geratzen dira ostalaritzako jarduerak, esaterako, taberna, kafetegi edo zirkuentzako jatetxe zerbitzuak, barrakak, txosnak eta elkarte gastronomikoak, hala nola Ingurumenaren Babesari buruzko 3/1998 Legearen II-A eranskinean aipaturiko jarduera guztiak.
- c) Debekatuta daude auzotarrei eragozpenak eragiten dizkieten jarduerak edo eraikinaren segurtasuna arriskuan jartzen dutenak, hala nola sukaldeak, labeak, frijigailuak edo funtzionatzeko keen arazketa eta erauzketa behar dituen beste edozein etxetresna elektriko jartzea.

### **Artículo 3. Ámbito de aplicación de esta ordenanza.**

Quedan sujetos al cumplimiento de esta ordenanza todos los locales e instalaciones incluidos en el artículo anterior cuyo funcionamiento se desarrolle dentro del término municipal de Berriz, con independencia de que sus titulares u organizadores sean personas físicas o jurídicas, sin ánimo de lucro, y se realicen de forma habitual o esporádica.

Esta ordenanza afecta tanto a los locales que existen actualmente, como a los que se abran en el futuro, por lo que se tendrá en cuenta, tanto, para la apertura de nuevos locales de ocio, como para la adecuación de los ya existentes.

### **Artículo 4. Uso**

- a) Estos locales están sometidos a la comunicación previa de actividad clasificada prevista en los artículo 55 y 62-bis de la Ley 3/1998 de Protección del Medio Ambiente. No tendrán cabida las actividades que no estén directamente relacionadas con el ocio, ni las que resulten molestas o estén prohibidas. Asimismo, queda prohibida la compraventa de cualquier producto.
- b) Quedan expresamente excluidas de la presente regulación las actividades hosteleras, tales como servicios de bar, café o restaurante para circos, barracas, txosnas y sociedades gastronómicas, así como todas aquellas actividades mencionadas en el anexo II-A de la Ley 3/1998 de Protección del Medio Ambiente.
- c) Quedan prohibidas las actividades que resulten molestas para el vecindario o que pongan en peligro la seguridad del edificio, así como la instalación de cocinas, hornos, freidoras y cualquier otro electrodoméstico que necesite para su funcionamiento la depuración y extracción de humos.

d) Debe katuta dago erregai mota oro biltegitratzea, berogailua erabiltzeko beharrezkoa dena salbu. Hala ere, gomendatzen da, ahal denean, erregairik behar ez duten berogailu sistemak ezartzea.

d) Queda prohibido el almacenamiento de toda clase de combustibles, excepto el que sea necesario para el uso de la calefacción. Se recomienda, no obstante, siempre que sea posible, implantar sistemas de calefacción que no precisen del uso de combustibles.

## **5. artikulua. Nori zuzenduta.**

1. Erabiltzaileei: Ordenantza honen bidez, aisialdi lokalen egungo baldintzak hobetu nahi dira. Helburua da erabiltzaileek, euren eskubideak ezagutzea, jardueraren titular bezala. Bestetik, mota honetako jarduera bat garatzean euren gain hartzen dituzten betebeharrak eta erantzukizunak ere ezagutu behar dituzte.
2. Auzotarrei: Zarata da aisialdi lokalen erabiltzaileen eta erkidegoaren arteko gatazken arrazoi nagusia. Lokal hauen inguruan pilatu ohi den zikintasanak ere bizikidetzakaltetzen du. Ordenantza honen helburua da arazoak murriztea eta alde bien eskubideak betetzen direla ziurtatzea.
3. Lokalen jabeei: Ordenantza honek lokalek bete beharreko baldintzak arautzen ditu, lokal horiek aisialdi eremu bezala erabili ahal izateko. Hortaz, jabeek ezagutu egin behar dituzte, tartean dagoen alde bat diren heinean.

## **6. artikulua. Lokal hauek bete beharreko gutxienezko baldintzak.**

- 6.1 Lokal guztiak ez dira egokiak jarduera jakin batzuk egiteko, gutxienezko segurtasun eta higiene baldintza batzuk bete behar baitituzte. Lokal hauek arautzeko helburuarekin, jarraiki adierazitako aspektuak bete beharko dira:

## **Artículo 5. A quien va dirigida.**

1. A los/as usuarios/as: Por medio de esta ordenanza se pretende mejorar las condiciones en las que se encuentran los locales de ocio. El objetivo es que los/as usuarios/as conozcan sus derechos como personas titulares de la actividad. Por otro lado, también deben conocer las obligaciones y responsabilidades que asumen al desarrollar una actividad de este tipo.
2. A los vecinos y vecinas: El ruido es el origen principal de los conflictos entre las personas usuarias de los locales de ocio y la comunidad. La suciedad que se acumula en torno a estos locales también afecta a la convivencia. El objetivo de esta Ordenanza es reducir los problemas y asegurar que se cumplan los derechos de ambas partes.
3. A los propietarios y propietarias de locales: Esta Ordenanza regula las condiciones que deben cumplir los locales para poder ser utilizados como local de ocio. Por lo tanto, los propietarios y propietarias deben conocerla, puesto que son una parte implicada.

## **Artículo 6. Condiciones mínimas que deben cumplir estos locales.**

- 6.1 No todos los locales son adecuados para realizar ciertas actividades, dado que deben cumplir unas condiciones mínimas de seguridad e higiene. Con el objetivo de regular estos locales, se deberán cumplir los aspectos que se señalan a continuación:

#### Azpiegiturak.

- a) ARGIA: Nahitaezkoa izango da argindarraren instalazioak behe-tentsiorako Araudi Elektroteknikoa betetzen duelako Ziurtagiria, teknikari eskudunak emana.
- b) URA: Nahitaezkoa da gutxienez ur-hargune eta zenbagailu bana egotea, higiene-lanak eta erabiltzaileen kontsumoa ziurtatzeko.
- c) KOMUNA: Komunak, gutxienez, konketa eta komuna eduki beharko ditu.
- d) BARNEALDEKO AKABERAK: Lokaletako paretak zarpiatuta eta margotuta egon beharko dira, eta zoruak zolatuta, lokala erraz garbitu ahal izateko.
- e) SU-ITZALGAILUA: CO2 itzalgailu bat (1) edukiko dute kaxa elektrikoaren ondoan, eta 6 kg-ko eta 21A-113B gutxienerako eraginkortasuneko erabilera anitzeko itzalgailu bat (1) kopuru nahikoan lokaleko edozein puntutik ez dadin 15 metrora baino gehiagora egon.

Itzalgailuak leku ikusgarrian eta publikoaren eskura ezarriko dira; horrela, goialdea 1,70 metroko garaieran egongo da. Suteen kontra ezarritako neurrien aldizkako mantentze-ikuskaritzak egingo dira.

- f) LARRIALDIETAKO ARGIAK: Irteerara bideko zein irteera dagoen lekuko seinaleztapena, hala nola larrialdietako gailuak behar bezala ezarrita egongo dira, Eraikuntzaren Kode Teknikoan suteen prebentzioari buruz agertzen diren jarraibideen arabera.

#### Infraestructuras.

- a) LUZ: Será obligatorio el Certificado de que la instalación eléctrica cumple el Reglamento Electrotécnico para baja tensión expedido por técnico competente.
- b) AGUA: Es obligatorio que haya por lo menos una toma de agua y un contador, para asegurar las labores de higiene y el consumo de las personas usuarias.
- c) BAÑO: Deberá disponer de aseo dotado como mínimo de lavabo e inodoro.
- d) ACABADOS INTERIORES: Los locales deberán tener las paredes raseadas y pintadas, y los suelos pavimentados, de manera que faciliten la limpieza del local.
- e) EXTINTOR: Dispondrán de un (1) extintor de CO2 junto al cuadro eléctrico, y un (1) extintor polivalente de 6 Kgs y eficacia mínima 21A - 113B en número suficiente para que desde cualquier punto del local no haya más de 15 metros hasta el mismo.

Los extintores se situarán el lugar fácilmente visible y accesible al público, de tal forma que el extremo superior se encuentre a una altura de 1,70 metros.

Se deberán realizar las revisiones periódicas de mantenimiento de las medidas contra incendio instaladas.

- f) LUCES DE EMERGENCIA: Tanto la señalización hacia la salida y la del lugar donde se encuentra ésta como los dispositivos de emergencia estarán adecuadamente colocados siguiendo las indicaciones que sobre prevención de incendios aparecen en el Código Técnico de Edificación.

- |  |   |
|--|---|
| <p>g) EDUKIERA: Eraikuntzaren Kode Teknikoan suteen prebentzioari buruz agertzen diren jarraibideak kontuan hartuta ezarriko da. Erabilera publikoko gunerako gutxi gorabeherako kalkulua izango da pertsona 1ekoa 2 metrotik behin, etxabeko erabilera publikoko gunean. Gehieneko edukiera hori lokalaren barruan adierazita egon beharko da, leku ikusgarri batean.</p> | <p>g) AFORO: Deberá fijarse el aforo teniendo en cuenta las indicaciones sobre prevención de incendios señaladas en el Código Técnico de Edificación. El cálculo aproximado para la zona de uso público será de 1 persona por cada 2 metros en zona de uso público en planta baja. Dicho aforo máximo deberá exponerse dentro del local, en un lugar visible.</p> |
| <p>h) ATEAK: Sartzeko eta irteteko atek 90 cm-ko zabalera izango du gutxienez. Gainerako atek 80 cm izango dituzte, irisgarritasunari buruzko 68/2000 Dekretuaren arabera.</p>   | <p>h) PUERTAS: La puerta de entrada y salida tendrá como mínimo 90 cm de ancho. El resto de las puertas tendrán 80 cm, de acuerdo con el Decreto 68/2000 sobre accesibilidad.</p>   |
| <p>i) SARRERA: Lokalen sarrerak egokituta egon behar dira segurtasun eta irisgarritasun neurriak ziurtatzeko. Era berean, kalerako zuzeneko sarbidea izan behar dute; ez, ordea, portaletik.</p>   | <p>i) ENTRADA: Los locales deben tener la entrada adaptada para asegurar las medidas de seguridad y accesibilidad. Asimismo, deben tener acceso directo a la calle, y no podrán tener acceso por el portal.</p>   |
| <p>j) Aisialdi lokalak ezingo dira inola ere soto-solairuetan gaitu.</p>   | <p>j) En ningún caso se podrán habilitar locales de ocio situados en plantas sótano.</p>  |
| <p>k) Lokalaren azalera edozein izanda ere, ezingo da inola ere 30 laguneko gehieneko edukiera gainditu.</p>   | <p>k) Con independencia de la superficie que disponga el local, en ningún caso podrá superarse un aforo máximo de 30 personas.</p>  |
| <p>l) Lehen sorospenetarako botika-kutxa bat eduki beharko dute.</p>   | <p>l) Deberán tener un botiquín de primeros auxilios.</p>   |
| <p>m) Lokalek aireztapen naturala edo behartua edukiko dute.</p>   | <p>m) Los locales dispondrán de ventilación natural o forzada.</p>  |

**7. artikulua. Bizitegiz besterako gunetako lokalen kokapenari buruzko baldintza zehatzak.**

Bizitegiz besterako gunetan dauden lokalen araubidea Hirigintzako Plangintzan aurreikusitakoari lotuko zaio, eta, bestela, Ordenantza honi, pertsoneri edo ondasunei eragozpen edo arriskuak eta ingurumenari kalteak sortu ahal badizkiete.

**Artículo 7. Condiciones específicas de emplazamiento de locales en zonas no residenciales.**

El régimen de los locales en zonas no residenciales estará sujeto a lo previsto en el Planeamiento Urbanístico y, en su defecto, en la presente Ordenanza, en la medida que sean susceptibles de causar molestias o producir riesgos a las personas o bienes, así como originar daños al medio ambiente.

#### **8. artikulua. Asegurua.**

Lokalak erantzukizun zibileko aseguru bat eduki beharko du, 100.000 €ko gutxieneko estaldura duena, erabiltzaileak eta hauen ondasunak babestuko dituena, hala nola hirugarrenak, lokalean gertatzen den edozein gertakariren aurrean. Erabiltzaileek kontratatuko dute. Erabiltzaileak adinez txikiak izanez gero, haien tutoreek kontratatuko dute.

#### **9. Artikulua. Kontratua.**

Lokal orok alokairu edo erabilera lagapen kontratu bat izan beharko du, jabeak eta erabiltzaileek izenpetua. Adinez txikien kasuan, dokumentua guraso batek edo legezko tutoreak izenpetuko dute.

### **II. KAPITULUA. HORNIDURA ETA HIGIENE- ETA OSASUN-BALDINTZAK.**

#### **10. artikulua. Aplikagarritasun orokorra.**

Kapitulu honetan jasotako neurri zuzentzaileak eta baldintzak arau orokor izaera dute, beraz, Ordenantza honen mendeko lokal guztiei aplikatu beharko zaizkie. Hala ere, berauen betetze zorrotzetik salbu egon ahal izango da Udalari nahikoa arrazoituta eskatuz gero, eta Udalak, era berean arrazoituta, konponbiderik egokiena proposatuko du.

#### **11. artikulua. Zaratak egindako eragozpenak ekiditeko neurriak.**

Aisialdi lokal bat etxebizitza baten etxabeen kokatuta egonez gero, lokala behar bezala intsonorizatuta egon beharko da, ondoko irizpideak kontuan hartuta:

#### **Artículo 8. Seguro.**

El local deberá tener un seguro de responsabilidad civil con una cobertura mínima de 100.000 € que proteja a las personas usuarias y a sus pertenencias, así como a terceros, ante cualquier hecho que ocurra en el local. Serán las personas usuarias quienes lo contraten. En caso de que los/as usuarios/as sean menores, serán sus tutores quienes lo contraten.

#### **Artículo 9. Contrato.**

Todo local debe tener un contrato de alquiler o de cesión de uso firmado por la persona propietaria y los/as usuarios/as. En el caso de menores, el documento estará suscrito por el padre/madre/tutor legal.

### **CAPÍTULO II. EQUIPAMIENTO Y REQUISITOS HIGIÉNICO-SANITARIOS.**

#### **Artículo 10. Aplicabilidad general.**

Las medidas correctoras y requisitos contenidos en este capítulo tienen carácter de normas generales, por lo que se deberán aplicar a todos los locales afectados por esta Ordenanza. No obstante, se podrá eximir del estricto cumplimiento de las mismas cuando se solicite de forma suficientemente razonada al Ayuntamiento, el cual propondrá justificadamente la solución más adecuada.

#### **Artículo 11. Medidas para evitar las molestias ocasionadas por el ruido.**

En el caso de que un local de ocio esté situado en la planta baja de una vivienda, éste deberá estar insonorizado adecuadamente, teniendo en cuenta los siguientes criterios:

- |   |   |
|---|---|
| <p>a) Irratiak, telebistak eta musika-haria erabili ahal izango dira. Musika-ekipoak ezartzeko, soinu-mugatzailera eduki beharko da, lokalaren edozein tokitan 75 dB(A) soinu maila gainditu ez dadin.</p>  | <p>a) Se podrán utilizar radios, televisiones, e hilo musical. Para la instalación de equipos de música, será necesario disponer de limitador de sonido para no sobrepasar los 75 dB(A) de nivel sonoro en cualquier parte del local.</p>   |
| <p>b) Jarduerak ez ditu 40 eta 30 dB(A) gaindituko goizeko 8:00etatik eta gaueko 22:00etatik aurrera, hurrenez hurren, gertuko etxebizitzetan Leq. en 60 Seg maila jarraitu baliokidean, ezta 45 eta 35 db(A) puntako gehieneko balioetan gertuenen dauden etxebizitzetako logela, sukalde eta egongeletan, goizeko 8:00etatik eta gaueko 22:00etatik aurrera, hurrenez hurren.</p> | <p>b) La actividad no superará los 40 y 30 dB(A) a partir de las 8 y 22 horas respectivamente en las viviendas próximas en nivel continuo equivalente Leq. en 60 Seg, ni los 45 y 35 dB(A) en valores máximos en punta en los dormitorios, cocinas y salas de estar en las viviendas más próximas a partir de las 8 y 22 horas respectivamente.</p> |
| <p>c) Erkidegoetan arazoak pilotzea ekiditeko, ez da aisialdi lokal bat baino gehiago irekiko atari bakoitzean.<br/>Ataririk ez daukaten eraikinetan, lokalen fatxada artean gutxienezko tartea 20,00 m-koa izango da.</p>  | <p>c) Para evitar que se acumulen problemas en las comunidades, no se abrirá más de un local de ocio por portal.<br/>En el caso de edificios sin portal, se establece como condición una separación mínima de 20,00 m entre fachadas de locales.</p>  |
| <p>d) Gomendatzen da gaueko 22:00etatik aurrera erabiltzaileak ez pilotzea lokalaren sarreran.</p>  | <p>d) Se recomienda evitar la concentración de usuarios en la entrada del local a partir de las 22:00.</p>  |

## **12. artikulua. Orduetgia.**

Lokal mota honetarako ordutegi bikoitza ezartzen da, auzotarrei eragin diezazkieten eragozpenen eta ondoko irizpideen arabera:

- Jarduerako Ohiko Orduetgia: Orduetgi honetan, jarduera gara daiteke ordenantza honen 11. artikuluan adierazitako baldintzetan.
- Isiltasun Orduetgia: Ordu-tarte honetan, lokal barruan egon daiteke, irratia, telebista eta musika-haria soinu barik, eta lokalean zarata egitea ahalik eta gehien ekidinda.

## **Artículo 12. Horario.**

Se señalan para este tipo de locales un doble horario en función de las molestias que pueda ocasionar al vecindario y según el siguiente criterio:

- Horario Normal de actividad: Se trata del horario en el que puede desarrollarse la actividad en las condiciones señaladas en el artículo 11 de la presente ordenanza.
- Horario de Silencio: Se trata de una franja en la que es posible permanecer en el interior del local con los equipos de radio, televisión e hilo musical sin sonido y evitando, al máximo ocasionar ruidos en el local.

Irizpide horien arabera, jarduera arautzeko ordutegia ondoko baremoei erreparatuta egokituko da:

De acuerdo con estos criterios el horario para regular la actividad se ajustará a los siguientes baremos:

Gehieneko zarata Ruido máximo	Gehienez 75 dB Hasta 75 dec	Isiltasuna Silencio
Astelehenetik ostegunera Lunes a jueves	8:00etatik 22:00etara De 8:00 a 22:00	22:00 – 24:00*
Ostiral, larunbat eta jaiegun bezperetan Viernes, sábados y vísperas de fiestas	10:00etatik 23:00etara De 10:00 a 23:00	23:00 – 01:00*
Zehaztu beharreko jaiegunetan Fiestas a designar	10:00etatik 24:00etara De 10:00 a 24:00	24:00 – 02:00*

\*Isiltasun ordutegitik kanpo eta hurrengo eguneko jarduerarekin hasi arte, isiltasun egoera berbera mantenduko da

\*Fuera del horario de silencio y hasta el inicio de la actividad del día siguiente se mantendrá el mismo estado de silencio.

### **13. artikulua. Higiene neurriak.**

- a) Lokal bakoitzak gutxienezko higiene neurri batzuei eutsi behar die. Beraz, lokalak egoki egon behar du berau garbitu ahal izateko, eta, ondorioz, zorua, paretak eta sabaia osagai lau eta garbitzeko errazez estali beharko dira.
- b) Ezin da zaborra lokal barruan pilatu poltsetatik edo edukiontzietatik kanpo.
- c) Lokalaren kanpoaldea eta ingurua higiene baldintza egokietan egon beharko dira, eta lokalean garaturiko jardueraren batetik eratorritako objektuak edo zaborrak ezingo dira bertan utzi.
- d) Zaborra, azkenean, kanpoaldeko udal edukiontzietara bota beharko da.
- e) Lokalaren aireztapena bermatu behar da, betiere auzotarrei eragozpenak sortzea ekiditen saiatuta.

### **Artículo 13. Medidas de higiene.**

- a) Cada local debe mantener unas medidas de higiene mínimas. Por lo tanto, el local debe estar adecuado para facilitar la limpieza, y por consiguiente el suelo, las paredes y el techo deberán revestirse con elementos lisos y de fácil limpieza.
- b) No se puede acumular basura dentro del local fuera de las bolsas o contenedores.
- c) El exterior del local y sus inmediaciones tendrán que estar en condiciones higiénicas adecuadas, debiendo evitarse el abandono de objetos o basuras derivadas de alguna actividad local.
- d) La basura debe depositarse finalmente en los contenedores exteriores municipales.
- e) Debe garantizarse la ventilación del local, siempre evitando producir molestias por ruido a los vecinos.



### III. KAPITULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA.

#### 14. artikulua. Lokal berrietako jarduera sailkatuaren aurretiko jakinarazpena.

Jarduera sailkatuaren aurretiko jakinarazpena, Udalaren aurrean, jardueraren sustatzaileak egingo du instalazioak erabiltzeko gai daudenean, eta, horretarako, ondoko dokumentuak aurkeztuko dira:

- Jarduera Sailkatuaren Aurretiko Jakinarazpenaren Inprimakia.
- Eskatzaileen izen-deiturak eta harremanetarako telefono-zenbaki bat. Adinez txikien kasuan, guraso edo tutoreen onarpenaren egiaztagiria.
- Jabearen datuak: izen-deiturak eta telefono-zenbakia.
- Lokala kokatuta dagoen Erkidegoaren presidentearen izen-deiturak eta telefono-zenbakia, pertsona hori egongo baita harremanetan erabiltzaileekin.
- Lokalaren jabetzaren edo errentamendu kontratuaren egiaztagiria.
- Erantzukizun zibileko aseguruaren kopia.
- Edukiera.
- Argindarraren instalazioak behe-tentsiorako Araudi Elektroteknikoa betetzen duelako Ziurtagiria, teknikari eskudunak emana.
- Suteen kontra ezarritako neurrien (itzalgailuak) mantentze-kontratua.

#### **Dokumentazio teknikoa**

- Jardueraren eta jarduerak ingurumenean, pertsonengan edo horien ondasunetan izan dezakeen eragina gutxiagotzeko ezarritako neurrien deskribapena, teknikariak zein jardueraren titularrak izenpetuta.

### CAPÍTULO III. RÉGIMEN JURÍDICO.

#### Artículo 14. Comunicación previa de actividad clasificada de nuevos locales.

La comunicación previa de actividad clasificada se formulará, ante el Ayuntamiento, por parte de la promotora de la actividad cuando las instalaciones se encuentren habilitadas para su inicio, presentando para ello, los siguientes documentos:

- Impreso de Comunicación Previa de Actividad Clasificada
- Nombre y apellidos de la/s persona/s solicitante y un teléfono de contacto. En caso de menores, documento acreditativo de la aprobación de los padres o tutores.
- Datos de la persona propietaria: nombre, apellidos y teléfono.
- Nombre, apellidos y teléfono del presidente/a de la Comunidad donde se ubique el local, ya que será esta persona quien estará en contacto con las/os usuarios/as.
- Documento que acredite la propiedad o contrato de arrendamiento del local.
- Copia del seguro de responsabilidad civil.
- Aforo.
- Certificado de que la instalación eléctrica cumple el Reglamento Electrotécnico para baja tensión expedido por técnico competente.
- Contrato de mantenimiento de las medidas contraincendios instaladas (extintores)

#### **Documentación técnica**

- Memoria en la que se incorpore la descripción de la actividad y de las medidas implantadas para minimizar el posible impacto de la actividad en el medio ambiente, las personas o sus bienes, suscrita tanto por el técnico como por el titular de la actividad.

Dokumentazioa teknikari eskudun batek idatziko du, eta jaso egingo du salbu dauden jarduerak arautzen dituen martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuaren IV. Eranskinean eskatzen den ohiko dokumentazioa.

- Teknikari eskudunaren ziurtagiria, egiaztatzen duena jarduera edota instalazioak eraikuntza-proiektuari eta aurkezturiko dokumentazio teknikoari egokitzen zaizkiela eta ezarritako neurri zuzentzaile guztiak betetzen direla. (otsailaren 27ko 3/98 Legearen 61.3 artikulua, apirilaren 23ko 7/2012 Legeak aldatua).

#### **15. artikulua. Lokal berriak irekitzeko edo jada jardunean daudenen egoera arautzeko prozedura.**

- a) Lokal bat ireki aurretik edo dagokion baimenik gabe jada jardunean daudenen egoera arautzeko, erabiltzaileek jarduera sailkatuaren aurretiko jakinarazpena aurkeztu behar dute Udalean, aurreko artikuluan adierazitako dokumentazioarekin batera.
- b) Behin jakinarazpena eginda, jarduera aurkezpen egunetik egikaritzen hasi ahalko da, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 71. artikulua araberak.
- c) Jarduerari beraren titularren eta ziurtagiria eman duten teknikarien erantzukizun pean ekingo zaio, alde batera utzi gabe jarduerari ekin ahal izateko dagozkion gaikuntzako titulu administratiboak edo araudi sektorial aplikagarriaren araberak nahitaezkoak diren aurretiko kontrolak eduki behar izatea.

La documentación será redactada por técnico competente, e incluirá, la documentación habitual que se exige en el anexo IV del decreto 165/1999, de 9 de marzo, regulador de actividades exentas.

- Certificación expedida por persona técnica competente que acredite que la actividad y/o las instalaciones se adecuan al proyecto constructivo y a la documentación técnica presentada y que cumple todas las medidas correctoras impuestas. (art. 61.3 de la Ley 3/98 de 27 de febrero, modificado por la Ley 7/2012 de 23 de abril)

#### **Artículo 15. Procedimiento para la apertura de nuevos locales o para regular la situación de los que ya se encuentran en uso.**

- a) Antes de abrir un local o para regularizar la situación de los locales que ya se encuentran en uso sin la correspondiente licencia, los/las usuarios/as deben presentar en el Ayuntamiento una comunicación previa de actividad clasificada con la documentación señalada en el artículo anterior.
- b) Una vez efectuada la comunicación, el ejercicio de la actividad se podrá iniciar desde el día de su presentación, de conformidad con lo establecido en el art. 71 bis de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.
- c) El inicio de la actividad se realizará bajo la exclusiva responsabilidad de las personas titulares de la actividad y del personal técnico que haya emitido la certificación, sin perjuicio de que para iniciar las actividades se deba disponer de los títulos administrativos habilitantes o de controles previos que sean preceptivos de acuerdo con la normativa sectorial aplicable.

#### **16. artikulua. Obra-baimena.**

Lokala egokitzeko edozein obra mota egin beharko balitz, dagokion obra-baimena eskatu beharko da.

#### **17. artikulua. Erregistratu gabeko lokalak.**

Izan litezkeen zigorrak alde batera utzi gabe, lokal bat Ordenantza hauetan jasotako baldintzak bete barik funtzionatzen ari dela jakinez gero, ondoko jarduketak egingo dira:

- a) Lokala arautzerik balego, titularrei lokalaren egoera arautzeko eskatuko zaie, horretarako epe bat emanda, behar bezala arrazoituriko kasuetan salbu ezingo dituen hiru hilabete gainditu, eta, gainera, lokala itxi ahal izango da egoerak hala gomendatuz gero, aurretik interesdunen iritzia entzunda.
- b) Lokala ezingo balitz arautu, ez dituelako Ordenantza hau edo gainerako udal araudiak betetzen, itxi egin beharko da, aurretik interesdunen iritzia entzunda.

### **IV. KAPITULUA. DIZIPLINA-ARAUBIDEA.**

#### **18. artikulua. Arau-haustek.**

- a) Arau-hauste arinak: Arau-hauste arintzat joko dira pertsonengan, horien ondasunetan edo ingurumenean duten eragin eskasagatik ez dagoenean horrela sailkatzeko suposiziorik.
- b) Arau-hauste larriak: Arau-hauste larritzat joko dira pertsonengan, horien ondasunetan edo ingurumenean arrisku edo kalte larriak eragiten dituzten eta antolamendu juridikoaren kontra garatzen diren jarduerak.

#### **Artículo 16. Licencia de obras**

Si fuera necesaria la realización de cualquier tipo de obra para el acondicionamiento del local, será necesario solicitar la correspondiente licencia de obras.

#### **Artículo 17. Locales sin registrar.**

Sin perjuicio de las sanciones que pudieran darse, cuando se tenga conocimiento de que un local funciona sin cumplir las condiciones establecidas en la presente Ordenanza, se efectuarán las siguientes actuaciones:

- a) Si el local pudiese regularizarse, se requerirá a los/as titulares del mismo que regularicen su situación, concediéndoles al efecto un plazo que, salvo en casos debidamente justificados, no podrá ser superior a tres meses, pudiendo además clausurarlo, si las circunstancias lo aconsejaren, previa audiencia de los/as interesados/as.
- b) Si el local no pudiera regularizarse por incumplimiento de esta Ordenanza o demás normativas municipales, deberá procederse a su clausura, previa audiencia de los/as interesados/as.

### **CAPITULO IV. RÉGIMEN DISCIPLINARIO.**

#### **Artículo 18.- infracciones.**

- a) Infracciones leves: Se consideran infracciones leves cuando por su escasa incidencia sobre las personas, sus bienes o el medio ambiente no se den los supuestos para dicha calificación.
- b) Infracciones graves: Se consideran infracciones graves las que generen riesgos o daños de carácter grave a las personas, sus bienes o al medio ambiente y se realicen contraviniendo el ordenamiento jurídico

c) Arau-hauste oso larriak: arau-hauste larriak HAMABI hilabeteko epean errepikatzea.

c) Infracciones muy graves: la reincidencia en infracciones graves en el plazo de DOCE meses.

### **19. artikulua. Preskripzioa.**

Ordenantza honetan jasotako arau-haustek eta zigorrak ondoko parametroen arabera preskribatuko dira.

- Falta oso larrien ondorioz ezarritako arau-haustek HIRU urtera preskribatuko dira, falta larrien ondoriozkoak BI urtera eta arinak SEI hilabetera.
- Falta oso larrien ondorioz ezarritako zigorrak HIRU urtera preskribatuko dira, falta larrien ondoriozkoak BI urtera eta arinak URTEBETERA.

### **20. artikulua. Zigorrak.**

a) Arau-hauste oso larrien kasuan:

- 3.000 €ra bitarte edota 15-30 lanegun komunitatearentzat.
- Instalazioen aldi baterako itxiera, osoa edo partziala, gehienez urtebetez.
- Ohartarazpena.

b) Arau-hauste larrien kasuan:

- 1.500 €ra bitarte edota 15-20 lanegun komunitatearentzat.
- Instalazioen aldi baterako itxiera, osoa edo partziala, gehienez sei hilabetez.
- Ohartarazpena.

### **Artículo 19.- prescripción.**

Las infracciones y sanciones recogidas en esta Ordenanza prescribirán de acuerdo a los siguientes parámetros.

- Las infracciones impuestas por faltas muy graves prescribirán a los TRES años, las impuestas por faltas graves a los Dos años, y las leves al de SEIS meses.
- Las sanciones impuestas por faltas muy graves prescribirán a los TRES años, las impuestas por faltas graves a los Dos años, y las impuestas por faltas leves al de UN año.

### **Artículo 20.- Sanciones.**

a) En caso de infracciones muy graves:

- Hasta 3.000€ y/o entre 15 y 30 días de trabajo para la comunidad.
- Clausura temporal, total o parcial, de las instalaciones, por un período máximo de un año.
- Apercibimiento.

b) En caso de infracciones graves:

- Hasta 1.500€ y/o entre 10 y 20 días de trabajo para la comunidad
- Clausura temporal, total o parcial, de las instalaciones, por un período máximo de seis meses.
- Apercibimiento.

c) Arau-hauste arinen kasuan:

- 750 €ra bitarte edota 5-10 lanegun komunitatearentzat.
- Instalazioen aldi baterako itxiera, osoa edo partziala, gehienez hilabetez.
- Ohartarazpena.

Lokala, salbuespenezko izaeraz, behin betiko itxi ahal izango da. Neurri edo zigor hori ezarri aurretik, erantsitako protokoloaren zein artikulua honetan jasotako zigorren aplikazioa bermatuko da.

**Lehenengo xedapen gehigarria. Lokalen eta erabiltzaileen erregistroa.**

- a) Udalak aisialdi egungo lokalen erregistro bat sortuko du, ordenantza honen bidez eskuratzen dituen datuetan oinarrituta.
- b) Aisialdi lokalen jarraipena egingo da, jada erabiltzen ez direnei baja emateko edo, aldaketarik badago, beraz jakinarazteko.
- c) Udala arduratuko da sor daitezkeen gatazketan bitartekaritza lanak egiteaz, betiere aldean artean adosturiko akordioak lehenetsita.
- d) Udalaren Informazio Bulegoak etengabeko informazioa emango die erabiltzaileei aisialdi lokalen inguruan.

**Bigarren xedapen gehigarria. Ikuskaritza eta kontrola.**

- 1. Lokalak urtero ikuskatuko dira, zein egoeratan dauden egiaztatzeko eta beraien erregistroa eguneratuta izateko.

c) En caso de infracciones leves:

- Hasta 750€ y/o entre 5 y 10 días de trabajo para la comunidad
- Clausura temporal, total o parcial, de las instalaciones, por un período máximo de un mes
- Apercibimiento.

Se podrá clausurar el local de manera definitiva con carácter excepcional. Antes de establecer dicha medida o sanción se garantizará la aplicación del protocolo anexo, así como la aplicación de las sanciones contempladas en este artículo.

**Disposición adicional primera. Registro de locales y personas usuarias.**

- a) El Ayuntamiento creará un registro de locales de ocio actuales, basándose en los datos que obtenga por medio de esta ordenanza.
- b) Se realizará un seguimiento de los locales de ocio, para dar de baja los locales de jóvenes que ya no se utilizan o comunicarlo en caso de que haya algún cambio.
- c) El Ayuntamiento se encargará de realizar las funciones de mediación en los conflictos que puedan surgir, dando siempre prioridad a los acuerdos que se establezcan entre las partes.
- d) La Oficina de Información del Ayuntamiento mantendrá siempre informados a las/los usuarias/os de los locales de ocio.

**Disposición adicional segunda. Inspección y control.**

- 1. Se inspeccionarán los locales anualmente, con el fin de ver en qué situación se encuentran y mantener actualizado el registro de los mismos.

- |  |  |
|--|--|
| <p>2. Udalaren eskumena izango dira ordenantzan ezarritakoa benetan betetzen dela egiaztatzeko eta dagozkion ikuskaritzak egiteko garatu beharreko funtzioak; horretarako, funtzio horiek betetzeko helburuarekin beharrezko neurriak hartzeko, Alkatea edo, badagokio, Hirigintzako Zinegotzi Delegatua egongo dira ahaldunduta.</p> <p>3. Lokalaren funtzionamenduan arazoak aurkituko balira, lokalaren ordezkariari epe jakin batean zuzentzeko eskatuko zaio; epe hori, behar bezala arrazoituriko kasuetan salbu, hiru hiletik beherakoa izango da.</p> <p>4. Ikuskaritza egiteko bisita bakoitzaren ondoren, akta bat idatziko da irregularitasuna ekarri ahal duten egitateak deskribatuz, eta egitate horien arduradunak egindako alegazioak ere bertan jasoko dira. Akta hauek ustezko egiazkotasun eta froga-balioa izango dute, alde batera utzi gabe, dagozkien interesen defentsan, administratuek aurkez ditzaketan frogak.</p> | <p>2. Serán de competencia municipal las funciones a desarrollar para verificar el efectivo cumplimiento de lo dispuesto en la ordenanza, así como para realizar las debidas inspecciones, hallándose facultados el/la Alcalde/esa o en su caso el/la Concejala/a Delegado/a de Urbanismo para adoptar las medidas necesarias con el objeto de garantizar tales funciones.</p> <p>3. Si se advirtieran deficiencias en el funcionamiento del local, se requerirá al/a la representante del mismo que las corrija en un plazo determinado que, salvo casos especiales debidamente justificados, no podrá ser superior a tres meses.</p> <p>4. Después de cada visita de inspección se levantará un acta describiendo los hechos que puedan ser motivo de irregularidad, en la que se harán constar las alegaciones que formule el/la responsable de dichos actos. Estas actas gozarán de la presunción de certeza y valor probatorio sin perjuicio de las demás pruebas que, en defensa de los respectivos intereses, puedan aportar los administrados.</p> |
|--|--|

**Hirugarren xedapen gehigarria. Legezko esparrua.**

Ordenantza honetan jaso gabeko guztiari dagokionez, Euskal Herriko Ingurumenaren Babesari buruzko 3/1998 Legean eta bere araudizko garapenean ezarritakoari erreparatuko zaio. Kontraesanik balego, 3/1998 Legea eta bere araudizko garapena gailenduko dira.

**Xedapen iragankorra.**

Egun aisialdirako irekita eta jardunean dauden lokalen erabiltzaileek URTEBETEKO epea izango dute, Ordenantza hau indarrean sartzen denetik aurrera, lokalak egokitze eta hemen jasotako dokumentazioa aurkezteko.

**Disposición adicional tercera. Marco legal**

En todo lo no dispuesto en la presente ordenanza se estará a lo establecido en la Ley 3/1998 de Protección del Medio Ambiente del País Vasco y su desarrollo reglamentario. En caso de contradicción primará citada la Ley 3/1998 y su desarrollo reglamentario.

**Disposición transitoria.**

Las personas usuarias de los locales que actualmente estén abiertos y funcionando como locales de ocio tendrán un plazo de UN AÑO a partir de la entrada en vigor de la presente Ordenanza para acondicionarlos y aportar la documentación exigida en la misma.

### **Azken Xedapena.**

Ordenantza hau 2013ko abenduaren 23ko (BAO 244 zkoa.) onetsi zen behin behinean eta behin betiko, onartu zen jendurrean jarritako epean ez zelako alegaziorik izan. eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hilabeteko epea igarotakoan sartuko da indarrean.

### **Disposición Final.**

Esta Ordenanza fue aprobada provisionalmente el 23 de diciembre de 2013 (BOB núm. 244), entendiéndose aprobada definitivamente al no haberse presentado reclamación alguna durante el periodo de exposición pública.

## ERANSKINA.

### BIZIKIDETZARAKO PROTOKOLOA.

- **Helburua:** Protokolo honen helburu nagusia da aisialdi lokalen fenomenoak sor ditzakeen bizikidetzaz gatazka eta gertakari desberdinak ezagutzea, bideratzea eta konpontzen saiatzea.
- **Erabilera:** Protokolo hau erabiliko da, batik bat, lokalen eguneroko erabilera kudeatzeko. Era berean, edozein gatazka edo desadostasunen aurrean aplikatuko da. Adostasunik lortu ez duten ordenantza edo akordioko puntuei protokolo honen bidez helduko zaie.
- **Ordezkariek:** Lokal bakoitzak eta etxebizitza-multzo bakoitzeko auzotarrek ordezkarik bana izendatuko dute. Adinez txikiak dauden lokalen kasuan, gazte bat eta guraso bat izendatuko dira ordezkarik.

Aisialdi lokalen kasuan, unean aukeratu ahal izango da ordezkarik. Hala ere, harremanetarako telefono-zenbaki bat eman beharko da.

Auzotarren kasuan, ordezkarik auzotarren bilera batean adostuko da (administrarik edo interesa erakusten duen auzotar bat). Auzotarrek eurek erabakiko dute zenbat ordezkarik izendatu etxebizitza-multzoan lokal bat baino gehiago egonez gero (ordezkarik bakarrik edo lokal bakoitzeko bana).

- **Jakinarazpena Administrazioari:** Hautaturiko ordezkarien izenak eta datuak Udaleko teknikariari helaraziko zaizkio.

## ANEXO.

### PROTOCOLO PARA LA CONVIVENCIA.

- **Objetivo:** Este protocolo tiene como objetivo principal detectar, encauzar e intentar solucionar los diferentes conflictos de convivencia y sucesos que pueda generar el fenómeno de los locales de ocio.

- **Uso:** Este protocolo se usará, sobre todo, para gestionar el uso diario de los locales. Se aplicará también ante cualquier conflicto o desacuerdo.

Los puntos de la ordenanza o del pacto que no hayan conseguido acuerdo se tratarán mediante este protocolo de convivencia.

- **Representantes:** Cada local y el vecindario de cada bloque de viviendas nombrarán un delegado o representante. En caso de los locales con jóvenes menores de edad, se nombrarán un/a joven y un padre/madre como representantes.

En el caso de los locales de ocio, se podrá acordar la persona representante en el momento. Aun y todo, se deberá facilitar un teléfono de contacto.

En el caso de los/as vecinos/as, el/la representante se acordará en una reunión de vecinos/as administrador/a o vecino/a que muestre interés). Serán los/as propios/as vecinos/as quienes decidan también cuantos representantes nombrar en el caso de que haya más de un local por bloque de viviendas (único/a representante o uno/a por local).

- **Testificación a la Administración:** Se le facilitarán los nombres y datos de los/as representantes elegidos/as al/a la técnico/a del Ayuntamiento.



- **Ohiko harremana:** Eguneroko harremanaz gain, Udaleko teknikariak eta Udaltzaingoa (muturreko kasuetan) izango dira erabiltzaile eta auzotarren arteko bizikidetzaren jagoleak, eta, osasunari eta segurtasunari dagokienez, udal arkitekto teknikoa lokalaren egoera definitzeko arduraduna.

Gainera, urtean bi bilera deituko dira, eta bileretako ondorioak teknikariari helaraziko zaizkio txosten batean jaso ditza.

Ohiko harreman honetan, erabiltzaileekin, auzotarrekin eta, kasu batzuetan, gurasoekin batera udalaren ordezkariak hartuko dute parte, dagokion gaiaren arabera pertsona bat edo beste izendatuta.

Ezohiko gai edo arazoaren aurrean, alde biek bilera bat deitzea adostuko dute. Bertaratu ala ez gai eta kasu bakoitzaren arabera erabakiko da.

- **Gatazkak bideratzeko prozesuak eta urratsak:**

Gatazka bat sortzen denean, erreferentziazko irudiak udaltzainak edota ertzainak eta Udaleko teknikaria izango dira. Horiek jarriko dira harremanetan erabiltzaile eta auzotarrekin eta eurek egingo dute egoeraren diagnostikoa.

Lokaleko erabiltzaileek edo auzotarrek gatazka bat errepikatu egiten dela ikusiz gero, alde bien ordezkariak bilera batera deituko dituzte. Alde biak arazoa beren kabuz konpontzen saiatuko dira.

Arazoa ez balitz horrela konponduko, Udaleko teknikariak bitartekari lana egingo du, negoziazio gehiago ahalbidetuta.

- **Relación ordinaria:** Además de la relación diaria, se reconocerán las figuras de los/as técnicos/as del Ayuntamiento y de la Policía Municipal (en casos extremos) como garantes de una convivencia entre usuarios/as y vecinos/as y la figura del/de la aparejador/a municipal como encargado/a de definir la situación de los locales en lo referido a la salud y la seguridad.

Además, se convocarán dos reuniones anuales, y se facilitarán las conclusiones de la reunión al/a la técnico/a, para que las archive en una memoria.

En esta relación ordinaria participarán junto a los/as usuarios/as, vecinos/as y en algunos casos padres y madres, representantes del ayuntamiento, asignando una figura u otra dependiendo del tema correspondiente.

Ante temas o problemas extraordinarios, ambas partes acordarán convocar una reunión. La asistencia se decidirá dependiendo de cada caso y tema.

- **Proceso y pasos para encaminar conflictos:**

Cuando surja un conflicto, las figuras referentes serán los/as municipales y/o ertzaina y el/la técnico/a del Ayuntamiento. Serán ellos quienes tengan contacto con los/as usuarios/as y vecinos/as y quienes realicen el diagnóstico de la situación.

Cuando los/as usuarios/as del local o los vecinos/as detecten algún conflicto reiteradamente, llamarán a los/as representantes de ambas partes a una reunión. Las dos partes intentarán resolver el problema por su cuenta.

En caso de que el problema no se resuelva en dicha reunión, el/la técnico/a del Ayuntamiento mediará en el tema, facilitando nuevas negociaciones.

Administrazioaren bitartekaritza ez balitz eraginkorra, Administrazioak berak kanpo aholkularitza baten bitartekaritza eskatuko du.

- **Udala:** Udalak, bere aldetik, beharrezkoa denean, bitartekaritza prozesuan laguntzeko eskura dituen edo eskaini ditzakeen bitartekoak aztertuko ditu.

Udalak beharrezkotzat jotzen du nagusiki gazteek artean gero eta handiagoa den errealitate sozial hau arautzea, eta, aldi berean, auzotarren zein erabiltzaileen atsedean eta segurtasun egokiak bermatu behar ditu.

Une jakin batzuetan, egiaztatu izan da aisialdi hainbat lokalek ez dituztela neurri zuzentzaile egokiak betetzen, eta, gainera, lokalaren edota eraikinaren baldintzak desegokiak direla egituraren aldetik eta, ondorioz, arriskua areagotzen dutela.

- **Ordenantza honen xedea da:** Aisialdi gune alternatibo bat bermatzea, nagusiki gazteek eskaturikoa; erabiltzaileei eurei eta auzotarrei eragozpenak eta arriskuak saihestea; errentarien eta auzotarren eskubide eta betebeharrak bateratzea; tartean dauden aldean erantzukizunak zehaztea; eta interes pribatuak eta publikoa harmonizatuko dituen konponbide asegarria bilatzea.

En caso de que la mediación de la Administración no fuese efectiva, la propia Administración pedirá la mediación de una asesoría externa.

- **Ayuntamiento:** El Ayuntamiento, por su parte, analizará los medios que tiene o que puede facilitar para ayudar en el proceso de mediación, cuando sea necesario.

El Ayuntamiento considera necesario regularizar una realidad social creciente, principalmente entre los/as jóvenes, al tiempo que debe garantizar el correcto descanso y seguridad de los/as vecinos/as así como de los/as propios/as usuarios/as.

En ciertas ocasiones se ha constatado que varios locales de ocio no cumplen las medidas correctoras idóneas y, además, las condiciones del local y/o del edificio son estructuralmente inadecuadas, incrementando por tanto el riesgo.

- **La presente Ordenanza nace con la finalidad de:** garantizar un lugar de ocio alternativo, demandado principalmente por los/as jóvenes; evitar molestias y riesgos para los/as propios/as usuarios/as y para el vecindario; conciliar los derechos y deberes de los inquilinos/as y vecinos/as; determinar las responsabilidades de las partes implicadas; y buscar una solución satisfactoria que armonice los intereses privados con el interés público.